

Assumpta Farran Pocaren Hautagaitza

Generoa	Emakumea
Adina	52
Noiztik zara Som Energiako bazkide?	2018ko amaieratik
Tokiko Talde batean sartuta zaude? Zein taldetan?	Ez
Mesedez, azaldu hitz batez Som Energiaren izan duzun ibilbidea	Antolatu diren azken bi eskoletan eta Som Energiak nire ekarpena egiteko eskatu didan ekimen guztietan parte hartzea.
Parte hartu duzu Som Energiaren Eskoletan, Batzar Nagusietan edo Tokiko Taldeen Topaketetan?	Bai, ez dut inoiz ezer galtzen!
Besterik esan nahi duzu Som Energiarekin duzun loturaren gainean?	Energías Renovables fundaziotik sarri proposatzen dut Som Energiaren Eskolatik ateratzen diren edo REESCOOPek Europar Batasunean aurkeztu dituen ekimenak defendatzea.
Mesedez, egin hausnarketa bi bideo hauetako informazioaren gainean Competencia 1. Asumo la responsabilidad colectiva	Kooperatibaren proiektuekin aurrera egiteko, funtsezkoa izango da komunitatearen beharrei erantzuten dien misioa argi izatea. Zalantzak sortuko dira, eta baita irtenbide ezberdinak ere, baina misioa eta interes kolektiboak argi baditugu, azkenean, ados

<u>Competencia 2. Conozco y comprendo la gestión de la cooperativa</u>	jarriko gara. Horretarako, profesionaltasuna, prestakuntza eta ezagutza behar-beharrezkoak dira eta argi izan behar dugu beti hau proiektu komun bat dela.
Beste kooperatiba edo kolektibo bateko kidea zara? Eman xehetasunak	Energías Renovables fundazioko kidea naiz, baina ez da kooperatiba bat.
Deliberatzeko eta parte hartzeko guneetan aritua zara?	Bai, aritua naiz.
Zuretzat zein da eredu kooperatiboaren ezaugarri aipagarriena? Eta nola uztartzen da hori Som Energiarekin, zure ustez?	Denok proiektuan parte hartzea, ezagutza, ideiak eta kezak partekatzea eta eztabaidatzea, prestakuntza jasotzea eta inor atzean utzi gabe aurrera egitea. Energia berriztagarriak ezartzeko proiektuak inguruko lurraldeko profesionalen beharra asetzen saiatzen dira beti, eta informazioa ahalik eta modu soil eta gardenenean ematen da. Baina badakigu ere nola eragin daitekeen erregulazio eta araudietan. Izan ere, REESCOOPek rol eredugarria betetzen du Europar Batasunean, demokratizazio energetikoaren eskubideak defendatzen. Eta kideen profesionaltasuna eta ikuspegia, bazkide guztiei egunero-egunero eredu energetiko eta sozialetan berrikuntzak egiteko ezagutza emateko.
Mesedez, egin hausnarketa genero-aniztasunaren gainean Som Energiaren bazkide-oinarriari dagokiolarik	Bikainak iruditzen zaizkit parekotasuna, errespetua eta abar bultzatzeko egiten diren ekimen guztiak. Baina espero dut, noizbait, tamalez oraindik asko falta bada ere, ekimen horiek beharrezkoa ez izatea, normaltasuna parekidea izango delako.
Sektore elektrikoan edota energia berriztagarrietan aritua zara? Mesedez, azaldu laburki	Bai. 1993az geroztik, ingurumenaren eta energiaren eremuan lan egiten dut. Fisika-ikasketak amaitzean, 1992an, berotze globalari eta energiari buruzko tesina egin nuen. 1993 eta 1998 bitartean, ingurumen-kalitatea kudeatzen aritu nintzen teknikari

	gisa Ingurumen kontseilaritzan. 1998 eta 2010 bitartean, teknikari aritu nintzen ICAEN institutuan, eraikinen eta garraioaren kudeaketa energetikoa egiten. 2011 eta 2016 bitartean, Kataluniako airearen kalitateari buruzko politika zuzendu nuen, Ingurumen-kalitatearen zuzendaritza nagusitik. Besteak beste, 2011n, lehen aldiz, ingurumen-kontaminazioa deklaratu zen (gardentasunaren seinale), airearen kalitatea hobetzeko Horizonte 2020 plana onartu zen eta abiazioaren zein industriaren NOx emisioen gaineko ingurumen-zergak ezartzea erabaki zen, eta Airearen kalitatearen funtsa sortu. 2016 eta 2018 bitartean ICAEN institutuko zuzendaria izan nintzen. Besteak beste, honako hauek lortu genituen: Kataluniako trantsizio energetikorako itun nazionala onartzea, autokontsumo fotovoltaikorako mahai parte-hartzaileak eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura sortzea. Une honetan, ICAEN institutuko Mugikortasun elektriko eta Energia malguko unitateko burua naiz, eta Energías Renovables fundazioaren patronatuan eta AEDIVE (Ibilgailu elektrikoa garatzeko eta sustatzeko enpresaburuen elkarte) elkartearen batzorde akademikoan sartuta nago.
Zure ustez, zeintzuk izango dira Som Energiaren erronkak hurrengo urteetan?	Energiaren demokratizazioa. Energia berriztagarri parte-hartzaileak, baina baita ere baliabide banatuen agregazioa, eskariaren kudeaketa... Kooperatiba ahaldundu egin behar da, energia berriztagarriek aurrera egingo duten munduan funtsezkoa izango den energia malgua kontsumitzaileen esku egon dadin. Lidergo irmorik gabe, hori ezingo dugu lortu. Som Energiak behar hori mahaigaineratu du dagoeneko. Lehenik, nazioarteko programen (hala nola FlexCoop) bidez, eta, orain, handizkako merkatu elektrikoan tarifa indexatuek eskaintzen duten aukera identifikatzeko inkestarekin. Hori funtsezkoa izango da. Eta, esan gabe doa, kooperatibak komunitate energetikoekin antzekotasun juridiko handia duenez gero, bide horretan aurrera egin behar dugula, haiek baitira ekonomia eta gizartea modernizatzeko motorra.

Mesedez, adierazi aipagarriak iruditzen zaizkizun Lanerako Planeko 3 edo 4 puntu	Sorkuntzarekin, lobby egiteko beharrarekin, prestakuntzarekin eta energia malguaren rolaekin lotutako alderdi guztiak.
Prestakuntza jaso nahiko zenuke alderdi hautakoren baten gainean Errektore Kontseiluko kide gisa ekarpen baliotsuagoak egiteko?	Kudeaketa kooperatiboa (organoak, fiskalitatea, erreserba-fondoak, parte-hartzea, eta abar), antolamendu-ereduak (erakunde horizontalak, gobernantza partekatua, lidergo inklusiboak, eta abar) eta oinarrizko ekonomia eta finantzak (kontu-balantzea, galdu-irabaziak, finantzaketa-tresnak, eta abar).
Amaitzeko, azaldu, mesedez, zerk motibatzen zaituen zure hautagaitza aurkeztera	Eredu fosil eta nuklearretik eredu berriztagarriko transformazioa egiten ari gara; arriskua da baliabide energetikoa bakarrik aldatzea. 100.000 bazkidek ematen duen indarra, energiaren demokratizazioa, komunitate energetikoak, agregazioa, eskariaren kudeaketa eta abar ardatz hartuta buru izateko garaia da. Orain hasi behar dugu hurrengo 10 urteetarako ikuspegia diseinatzen.
Besterik gehitu nahi duzu?	Azken 10 urteetan Kooperatibak lan ikaragarria egin du. Muga oso goian jarri da eta erronka berriak ditugu aurretik. Eredu %100 berriztagarriko trantsizio energetikoaren bizkarrezurra sistema malgutzeko egiten dugun lana izango da, eta hori kontsumitzaileen esku dago, eskariaren mende.